

## Gure ibaien osasuna hobetzeko bidean, adinekoen parte hartzearekin



Herritarren  
partaidetza eta



Aire zabaleko eremuak  
eta eraikinak

## Gure ibaien osasuna hobetzeko bidean, adinekoen parte hartzearekin

Ura bizi iturri eta berme da. Berez, ezin dugu ukatu eragina duela naturako espezie guztietan.

Jarraian aipatzen diren elkarteok Debagoiena Lagunkoia osatzen dugu eta deskribatuko dugun praktikaren subjektua eta arima gara: Aretxabaletako Basotxo, Antzuolako Landatxope, Eskoriatzako Olazar eta Bergarako San Joxepe.

Maitasunez gogoratzen ditugu ibaietatik ur garbia edan, haietan jolastu, bainatu, eta amuarrainak arrantzatzen saiatzen ginen garaiak. Ondoren, industriaren bilakaerak, kontsumo ohitura berriek eta material ez biodegradagarrien pilaketak, besteak beste, egoera kezagarri bat eragin dute ibaietan. Zentzu horretan, haien osasuna bermatzeko eskualdeko edo lurraldeko erakundeen saiakerak ez dira nahikoa izan.

2018. urtearen hasieran, Debagoieneko erretiratuen eta pentsiodunen lau elkartek Debagoiena Lagunkoia eratu genuen, eta jendaurrean aurkeztu genuen, abian jarri ziren eta modu autonomoan lan egiten zuten «lagunkoia» ekimeneko herriko beste talde batzuekin batera. Une horretatik aurrera proiektu komunak garatzen hasi ginen, eta horietako bat, zehazki, URA izenekoa da. Deba ibaiaren eta ibaiadarren egoera aztertu genuen: ur zikinen azterketa, kanalizazioa, ibaiaren garbiketa, inguruaren egoera, zaborra, landaredia eta fauna eta abar.

Lehen behaketaren ondoren, herri bakoitzeko udalekin harremanetan jarri ginen emaitzak partekatzeke. Hala ere, ekimen zehatzak gauzatu ahal izateko, erakunde bakoitzaren eskumenak ezagutu behar genituen (udala, aldundia, URA agentzia). Debagoiena Lagunkoia kideek eta inplikaturako udaletako ordezkariak prestakuntza eta informazio saio bat antolatu genuen URA agentziako Víctor Peñarekin. Ibaiei eta inguruneari buruzko hainbat kontzeptu argitu zizkigun: garbitasunaren, kontserbazioaren eta mantentzearen esanahia; zer landare kendu behar diren ibaiak profilatzeke; zer den zaborra eta zer ez; zein diren ibaiaren ekosistemaren osagaiak. Gainera, ibaien osasunari eusteko zer arrisku saihestu behar diren eta ibaiak nola zaindu behar diren ere azaldu zigun. Amaitzeko, jakin genuen nola dauden banatuta ibaiekin loturiko eskumenak eta erantzukizunak udalen, mankomunitateen eta Eusko Jaurlaritzaren artean.

Era berean, Arrasateko araztegia bisitatu genuen, presidentearekin eta mankomunitateko ordezkariarekin batera.

Informazio guztiarekin, diagnostikoa egin genuen eta udal eta mankomunitate bakoitzari aurkeztu genion, Debagoieneko zortzi udalerrietako erretiratuen eta pentsiodunen 11 elkarteren adostasunarekin.

Prozesu horretan jarraitutako kronograma hauxe da:

- Tokiko lehen azterketa: 2013ko iraila.
- Debagoiena Lagunkoia eratzea: 2018ko urtarrila.
- Elkarrekin lantzeko gaiak definitzea eta uraren gaiari lehentasuna ematea: 2018ko uztaila.
- Ibaiei buruzko diagnostiko partekatua: 2018ko urria.
- Bilerak lantaldearekin: 2019an zehar.
- Prestakuntza eta informazio saioa URA agentziarekin: 2019ko maiatza.
- Bisita araztegitara: 2019ko martxoa.
- Diagnostikoaren amaiera: 2019ko ekaina.
- Tokiko elkarteak onartzea: 2019ko iraila.
- Diagnostikoa udalei aurkeztea: 2019ko iraila.
- Lantaldearen eta mankomunitatearen arteko bilera: 2019ko abendua.

## 1. Erakunde sustatzaileak

DEBAGOIENA LAGUNKOIA (Aretxabaletako Basotxo elkarte, Antzuolako Landatxope elkarte, Eskoriatzako Olazar elkarte eta Bergarako San Joxepe elkarte), eskualdeko udalak eta Debagoieneko Mankomunitatea. Proiektuan 80 pertsonak hartu dute parte zuzenean.

Debagoieneko eta Mankomunitateko udalen laguntza eta inplikazioa izan dugu.

## 2. Erakunde mota

Publikoa eta pribatua

## 3. Xede taldea

Erretiratuak eta pentsiodunak eta eskualdeko herritarrak, oro har

## 4. Lurralde eremua

Debagoiena

## 5. Egoera

Amaituta

## 6. Etiketak

Parte hartzea, Gipuzkoa, prestakuntza

## 7. Helburuak

Helburu orokorrak:

- Debagoieneko udalerrietako uraren kalitatea hobetzea.
- Helburu horrekin, ibaien eta ibaiadarren diagnostikoa egitea.
- Arlo horretako prestakuntza handitzea.
- Hobetzeko proposamenak egitea hainbat mailatan: herriak, eskualdeak, lurraldeak.
- Debagoiena Lagunkoia osatzen duten pertsonen parte hartzea sustatzea eta, horien bidez, adinekoen eta haien elkarten parte hartzea ere sustatzea, arazoak definitzerakoan eta hobetzeko proposamenak egiterakoan protagonista izango direla bermatuta.
- Adinekoen eta haien elkarten prestakuntza bultzatzea.
- Debagoiena Lagunkoia eta eskualdeko erakundeen arteko harremana sendotzea.

Helburu zehatzak:

- Egoera aztertzea eta diagnostiko bat egitea, ibaietako uraren kalitatea hobetzeko.
- Gai horri buruzko informazioa eta prestakuntza jasotzea, URA agentziako Víctor Peña teknikariaren eskutik: informazioa hobetzea eta okerreko ideiak baztertzea. Ibaien osasuna bermatzeko kontuan hartu beharreko elementuak identifikatzea. Erakundeen eskumenak ezagutzea, gure aldarrikapenak eta proposamenak ondo bideratzeko.
- Araztegia eta haren funtzionamendua ezagutzea, hara iristen diren materialek sortzen dituzten arriskuez jabetuta.
- Eskualde mailako lan bat egitea, herri bakoitzeko kideen ideiak eta proposamenak kontuan hartuta.
- Diagnostiko zehatza osatzea.
- Uraren kalitatea hobetzeko proposamenak erakundeetan aurkezteko lana kudeatzea. Besteak beste, hondakin urak bildu eta kudeatzea: Elgetako eta Antzuolako hondakin uren hodi kolektoreak amaitzea eta gainerako herrietako auzo batzuetako ura hodi nagusiarekin ondo lotzea.
- Herri bakoitzean ibaien osasuna zaintzera bideratutako kanpainak egitea, herritarren sentsibilitatea eta ingurumenarekiko jarrera arduratsua sustatuta.

## 8. Metodologia

Jarraian, metodologiaren ardatz nagusiak aipatuko ditugu:

- Debagoiena Lagunkoia taldeen eta bertako kideen parte hartzea landu beharreko gaiak hautatzeko, prozesua definitzeko eta jarraipena eta ebaluazioa egiteko lanean.
- Parte hartze horren ezaugarriak entzute aktiboa, ideia guztien legitimitatea onartzea eta erabakiak kideen adostasunean oinarritzea dira.
- Debagoiena Lagunkoia taldeen eta bertako kideen etengabeko prestakuntza.
- Komunitatearen inplikazioaren garrantzia ingurune osasungarriagoa eta ingurumenarekiko errespetuzkoagoa lortzeko.
- Herritarren eta erakundeen arteko elkarrekintza eta lankidetzaren sustatzea.

Jarraitu beharreko dinamika:

- Proiektuaren xedea adostea: herri guztietako Lagunkoia taldeko kideen ideiak kontuan hartuta, URA aukeratu zen Deba ibaia partekatzen dugulako. Hala ere, herri bakoitzaren egoera desberdina da: udalerririk batzuetan hondakin urak beste batzuetan baino hobeto kudeatzen dira (Elgeta eta Antzuola), kolektorearen zati handi bat bukatzea falta baita, eta, beraz, beste udalerririk batzuetatik garbiago iristen den uraren kalitatea galtzen da.
- Herri bakoitzeko kideek herri horretako ibaiaren egoera aztertzea eta lehen diagnostikoa egitea. Hori dagokion udalarekin egin zen, arazoak identifikatuta eta sortzen ziren zalantzak planteatuta:
- ibaietako landaredia kentzeko edo ez kentzeko irizpideak, eta ibaien elementu eta osagai naturalak zein diren eta zein ez zehaztea.
- Eskualdean talde bat sortu zen diagnostikoa herri guztiekin partekatzeko. Argi zegoen zalantza berberak edo antzekoak genituela eta informazio gehiago behar genuela.
- Bilera bat antolatu genuen URA agentziako teknikari batekin (Víctor Peña), eta informazio esanguratsua bildu genuen: garbiketaren eta kontserbazioaren arteko aldea, ibaia ekosistema gisa aztertzea, zaindu beharreko elementuak, arrisku nagusiak eta abar.

## 9. Alderdi berritzaileak

Jarraian, proiektu honen ezaugarri interesgarrienak aipatuko ditugu:

Lagunkoia ekimeneko taldeen eta, oro har, eskualdeko erretiratuen eta pentsiodunen elkarrekin funtzionamenduari eta erantzukizunei dagokienez aurrerapausoak eman dira, herri bakoitzeko praktika gainditu delako eta esparru zabalago batean lan egin delako, eskualdean hain zuzen, interes komuneko gai bat ardatz hartuta. Proiektu osoari emandako laguntza eta bultzada Debagoiena Lagunkoia taldearen egituratik eta lantaldeetatik etorri da.

Teoria eta praktika biltzea lortu da. Izan ere, diagnostikoa egin ahal izateko, ezinbestekoa zen «ibaia ulertzea», eta hor jabetu ginen zeuden gabeziez. Ondorioz, Mankomunitatearen laguntzarekin, prestakuntza eta informazio saio bat antolatu genuen Uraren Euskal Agentziaren (URA) bidez.

Helburu bera lortzeko, hainbat mailatako arduradunekin lankidetzan aritu gara, zehazki, udalekin, mankomunitateekin eta URA agentziarekin (ibaien egoeraren

behaketa, hobetzeko proposamenen balorazioa, ibaiaren ibilguko zuhaitz, harri eta bestelako materialekin zer egin aztertzeko).

Ingurumenaren kontserbazioari buruzko kontzientzia sortzea edo handitzea.

## 10. Ebaluazioa eta emaitzak

Ebaluazio kualitatibo bat egin dugu, gure ikuspuntutik, gaiak eskatzen zuenari jarraituta.

Horretarako, hainbat alderdi hartu ditugu kontuan.

Debagoiena Lagunkoiari dagokionez:

- Parte hartu duten kideen kopurua eta erakutsitako poztasun maila.
- Udaletako ordezkarien esker ona.
- Kide guztiek ibaiei buruz ikasitakoa.
- Proiektuaren oihartzuna hedabideetan.

Eskualdeko herritarrei dagokienez:

- Proiektuaren oihartzuna hedabideetan.

Eskualdeko erakundeei dagokienez:

- Erretiratuen eta pentsiodunen elkarteak onartzea, eta udalerrien hobekuntzan duten rol aktiboa aitortzea.
- Elkarteen eta erakundeen arteko harremana sendotzea, Lagunkoia mugimenduaren beste edozein erronkari batera erantzuten jarraitzeko.

Etorkizunari dagokionez:

- Mankomunitateari egindako proposamenak erantzun positiboa izan du: 2020ko aurrekontuan 35.000 euroko partida bat onartu da ibaiak hobetzeko eta herritarrak sentsibilizatzeko kanpainak egiteko.
- Eskaera egin dugu zenbateko hori zein ekimen zehatzetarako erabiliko den jakiteko. Beraz, etorkizunean gai honen jarraipena egiten jarraitu ahal izango dugu.